Prozedurak prozedura, baina, hiriak badu emakumezkoentzako arriskutsuak diren mapa bat eta bertan hainbat neurri hartzea proposatzen da; eta mapa egiterakoan udal taldeen ekarpenak aintzakotzat hartu ez badira ere, derrigorrezkoa deritzogu jarduera plana zehaztean Udalbatzak udal gobernuari eskatu ziona betetzea eta udal talde guztiok aintzakotzat hartzea.

Sea cual sea el procedimiento seguido, la ciudad ya cuenta con un mapa que recoge los puntos que son peligrosos para las mujeres y que, además, propone diversas medidas a adoptar. Y, aunque a la hora de elaborar el mapa no se han tenido en cuenta las posibles aportaciones de los grupos municipales, consideramos obligado que, a la hora de definir el plan de actuaciones, el gobierno municipal cumpla con lo solicitado por el Pleno y tome en consideración a todos los grupos municipales.

Hori dela-**eta**, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzarrari, onar dezan:

Por consiguiente, la concejala que suscribe somete a la aprobación del Pleno la siguiente MOCIÓN:

- Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Donostiako puntu kritikoen maparen ondorioz gauzatuko den jarduera plana adostu dadila Udalbatza osatzen dugun udal talde guztiekin.
- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al gobierno municipal que el plan de actuaciones que se llevará a cabo como consecuencia del mapa elaborado sobre los puntos críticos de San Sebastián sea consensuado entre todos los grupos municipales que formamos el Pleno.

Donostian, 2015eko martxoaren 20an

San Sebastián, 20 de marzo de 2015

Aitziber San Roman Abete

Aitziber San Roman Abete,

EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia.”

concejala del grupo municipal EAJ/PNV.”

Eztabaida hasita, Aitziber San Román Abete andreak, Iciar Aguilera de Juan andreak, Maravi Dafauce Pozo andreak eta Naiara Sanpedro Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores, D^a. Aitziber San Román Abete, D^a Iciar Aguilera De Juan, D^a Maravi Dafauce Pozo y D^a Naiara Sanpedro Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 18 - (7) PSE-EE, (6) PP, (5) EAJ/PNV.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 18 - (7) PSE-EE, (6) PP, (5) EAJ/PNV.

AURKAKO BOTOAK: 8 – BILDU.

VOTOS EN CONTRA: 8 – BILDU.

III.2.8 Kontrol mozioa, EAJ taldeak aurkeztutakoa, argi sarearen kablearen lapurketa dela eta.

III.2.8. Moción de control que presenta el Grupo EAJ/PNV relacionada con el robo de cableado en la red eléctrica

Martin Ibabe Eceiza EAJ/PNV taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa hil honen 16an Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

D.Martin Ibabe Eceiza, concejal del Grupo Municipal EAJ, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, tiene a bien presentar la siguiente Moción. La Moción es consecuencia de la Interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, el día 16 del presente mes.

MOZIOA

MOCIÓN

Azken urteotan, lapurreta ugari izan da kaleko argien instalazioetako kable sarean.

A lo largo de los últimos años se vienen produciendo robos en la red de cableado perteneciente a las instalaciones de alumbrado Público.

Delitu hori hiriko hainbat aldetan gertatu da, alde batzuetan behin baino gehiagotan gertatu ere, eta horrek arazo ugari sortu ditu.

Este tipo de delito se produce en diferentes zonas de la ciudad, en algunas se repite en más de una ocasión y genera numerosos problemas.

Ametzagaiñan, esaterako, behin baino gehiagotan bota behar izan dira kable berriak, baina beste zenbait gunetan, bere garaian inbertsio handia egin bazen ere, ez konpontzea erabaki da.

Entornos como Ametzagaina, han sido repuestos en varias ocasiones y a día de hoy existen zona donde, a pesar de la inversión realizada en su momento, se ha adoptado la decisión de no reparar.

Era horretako delituak izan dira, orobat, Aieten, Uliá Pagolan, Añorga Txikin, Cristina-Enean, Oroimenaren Lorategian, Indalecio Prieton eta beste hainbat inguruetan.

Otros entornos donde se ha producido este tipo de delitos son Aiete, Uliá Pagola, Añorga Txiki, Cristina Enea, el Jardín de la Memoria, Indalecio Prieto....etc...etc...

Halako lapurretak egiteko, azpiegitura, ezagutza eta, batez ere, denbora behar dira.

Para que se produzca este tipo de robos se necesita una infraestructura, conocimiento y sobre todo tiempo.

Azken batean, arazo larria da eta tratamendu zehatza behar du.

En definitiva, estamos ante un serio problema que merece un tratamiento muy concreto.

Hori dela eta, haxe da gure

Teniendo en cuenta lo señalada, procedemos a realizar la siguiente:

MOZIOA

- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari har ditzala hartu beharreko neurriak eta elkarlanean jardun dezala gai horretan eskumena duten gainerako administrazioekin, era horretako delituak saihesteko.

Donostia, 2015eko martxoaren 19

Izpta.: Martin Ibabe Ezeiza,

Donostiako EAJ/PNVko zinegotzia.”

MOCION

-El Ayuntamiento pleno insta al Gobierno Municipal a que tome todas las medidas oportunas y colabore con el resto de las administraciones competentes en la materia con el objeto de poner coto a todo este tipo de delitos.

En Donostia, a 19 de Marzo de 2015

Fdo: Martin Ibabe Ezeiza

Concejal EAJ/PNV Donostia.”

Eztabaida hasita, Martin Ibabe Ezeiza jaunak, Iciar Aguilera De Juan, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Nekane Burutaran Urbietak andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores, D. Martin Ibabe Ezeiza, D^a. Iciar Aguilera De Juan, D. Enrique Ramos Vispo y D^a Nekane Burutaran Urbietak, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

III.2.9 Kontrol mozioa, EAJ taldeak aurkeztutakoa, Udalaren posta zerbitzuaren kontratua dela-eta

Aitziber San Roman Abetek, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, Udal Batzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri honako MOZIO hau aurkezten du, *Udalaren posta zerbitzuaren kontratua dela-eta*, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Zerbitzu Orokorretako Batzordean 2015eko martxoaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

III.2.9. Moción de control que presenta el Grupo EAJ/PNV sobre el servicio de correos del ayuntamiento.

Aitziber San Roman Abete, concejala del grupo municipal EAJ/PNV, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete a la consideración del Pleno la siguiente MOCIÓN, relativa al *contrato del servicio de correos del Ayuntamiento*. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 16 de marzo de 2015.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Duela lau urte, 2011ko otsailaren 18an, hain zuzen, 2011ko otsailaren 18an Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi zuen Udalaren eta hari atxikitzen zaizkion erakunde beregainen eta entitateen posta zerbitzuen kontratua Sociedad Estatal Correos y Telégrafos-i esleitzea; kontratuaren iraupena 4 urtekoa zen.

Hace cuatro años, más exactamente, el 18 de febrero de 2011, la Comisión de Gobierno decidió adjudicar a la Sociedad Estatal Correos y Telégrafos el contrato del servicio de correos del Ayuntamiento y de sus organismos autónomos y entidades. La duración de dicho contrato se fijó en cuatro años.

Kontratoaren iraupena amaitu delarik, EAJ-PNV udal taldeak galdetu zion udal gobernuari zer asmo duen udal posta zerbitzuarekiko. Udal gobernuak erantzun zuenaren arabera, lehiaketa berria ari da prestatzen eta oraingo honetan bi lote ateratzea udal gobernuak eta horietako lote bat laneko zentro berezientzako uztea erabaki du.

Al finalizar el contrato, el grupo municipal EAJ/PNV preguntó al gobierno municipal cuáles eran sus intenciones con respecto al servicio de correos. Éste respondió que estaba preparando un nuevo concurso y que el gobierno municipal había decidido sacar dos lotes y reservar uno de ellos a centros especiales de trabajo.

Erabat bat gatoz erabaki horrekin; izan ere, EAJ-PNVren iritziz administrazioek dituzten aukerak baliatu behar dituzte lan munduan sartzeko arazo handienak dituztenei lana aurkitzen laguntzeko eta eredugarri izan behar dute arlo honetan ere eta hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkeztzen dio Udalbatzarrari, onar dezan:

Estamos totalmente de acuerdo con esta decisión, puesto que EAJ/PNV considera que las posibilidades con que cuentan las administraciones se deben aprovechar para ayudar a encontrar trabajo a los que más dificultades tienen para ello y que, además, estas administraciones deben ser un ejemplo también en este ámbito. Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN al Pleno del Ayuntamiento, para su aprobación:

- Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio ahalik eta azkarren presta ditzala Udalaren Posta Zerbitzuaren kontratuaren baldintza orriak, dagokion lehiaketa lehenbait lehen egin dadin.

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al gobierno municipal que elabore lo más rápidamente posible los pliegos de condiciones del contrato del servicio de correos del Ayuntamiento, para que la licitación correspondiente se haga cuanto antes.

Donostian, 2015eko martxoaren 20an

San Sebastián, 20 de marzo de 2015

Aitziber San Roman Abete

Aitziber San Roman Abete,

EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia."

concejala del grupo municipal EAJ/PNV."

Eztabaida hasita, Aitziber San Román Abete andreak, parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, interviene en este punto el señor D^a. Aitziber San Roman Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

III.2.10 Kontrol mozioa, EAJ taldeak aurkeztutakoa, Altzako Polikiroldegiko etorkizuna dela eta.

EAJ taldeko zinegotzi Martin Ibabe Eceizak, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak 2015eko martxoaren 16an izan zuen bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azkeneko hilabete hauetan bilera batzuk izan dira Tomasene Kultur Etxean Altzako kiroldegi berria egiteko proiektuaren inguruan.

Bilera horietan, kanpoko guneen eta kiroldegi berriak izango duen edukiaren gaineko planteamendu batzuk azaldu dituzte.

Gauza batzuetan jendea kontra izan da nabarmen, eta ez dute proiektuen aurkezpenetan izan den jendearen onarpenik izan.

Beste gauza batzuetan, berriz, esan dute erabakiak hartuta zeudela eta ez zirela eztabaidagai. Gauza harrigarri samarra; izan ere, herritarrek berek eskatzen baitzituzten azalpenak.

Eta beste planteamendu batzuen inguruan, berriz, halako nahasmen zeremonia bat-edo izan dugu, gauza bat eta haren kontrakoa esaten baitzen bilera batean berean. Eta horrek ere

III.2.10. Moción de control que formula el Grupo EAJ/PNV relacionada con el futuro polideportivo de Altza

D.Martin Ibabe Eceiza, concejal del Grupo Municipal EAJ, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, tiene a bien presentar la siguiente Moción. La presente es consecuencia de la Interpelación tratada en la Comisión de Servicio a las Personas, el día 16 de Marzo de 2015.

JUSTIFICACIÓN

A lo largo de los últimos meses se vienen convocando reuniones en la Casa de Cultura de Tomasene en torno al proyecto sobre el que se desarrollará el nuevo Polideportivo de Altza.

En este tipo de reuniones se han dado a conocer una serie de planteamientos, en torno a los espacios exteriores y el contenido que albergará el futuro Polideportivo.

Algunas de las cuestiones han suscitado claras discrepancias y no han recibido la aceptación de los asistentes a las presentaciones del proyecto.

Sobre otras cuestiones se ha anunciado que las decisiones estaban tomadas y que no se sometían a debate, cuestión un tanto sorprendente teniendo en cuenta que han sido los propios ciudadanos los que estaban pidiendo las explicaciones.

Sobre otros planteamientos hemos asistido a lo que se puede entender como una ceremonia de la confusión, donde en una misma reunión se daba una información y la

haserre eta eztabaida dezentea eragin du bileran zen jendearen artean.

contraria. Cuestión que ha generado malestar entre los asistentes y ha sido punto claro de polémica.

Horrenbestez, kontuan izanik oso inbertsio handia dela eta horren ondorioak kirol jardunari ez eze auzoaren gune handi baten antolaketari ere eragingo diola, eta esan dugun informazio bilera horietan zer kontraesan eta gabezia izan diren ere ikusirik, hauxe da gure

Teniendo en cuenta que estamos ante una inversión muy importante y que las consecuencias de la misma abarcan cuestiones tanto vinculadas a la actividad deportiva como al ordenamiento de una amplia zona del barrio y viendo las contradicciones y carencias que en estos momentos se han presentado en las reuniones informativas señaladas, procedemos a presentar la siguiente

MOZIOA

MOCIÓN

Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio Altzan diren beharrak aintzakotzat hartzeko kiroldegi berria garatzeko orduan, eta jendeak eskatzen dituen jarduerak egiteko moduko edukia emateko kiroldegi berriari.

El Ayuntamiento Pleno insta al equipo de Gobierno a que tenga en cuenta las necesidades existentes en el barrio de Altza a la hora de desarrollar el futuro Polideportivo y dote a este del contenido necesario para realizar las diversas actividades que se demandan en la actualidad.

Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio kiroldegi berriaren inguruko bizilagunei mugikortasun, aparkaleku nahiz trafiko aldetik eragingo zaizkien ondorioak ere kontuan izateko eta hartu behar diren neurriak hartzeko azpiegitura horren garapenak, lehenaz gainera, beste arazo bat gehiago ez ekartzeko.

El Ayuntamiento en Pleno insta al Equipo de Gobierno a que tenga en cuenta las afecciones que se generarán para todos los vecinos del entorno del futuro Polideportivo, en materia de movilidad, estacionamiento y tráfico y adopte las medidas necesarias para que el desarrollo de esta infraestructura no suponga un problema añadido.

Donostia, 2015eko martxoaren 20a

En Donostia, a 20 de Marzo de 2015.

Izpta.: Martin Ibabe Ezeiza,

Fdo: Martin Ibabe Ezeiza

Donostiako EAJ/PNVko zinegotzia."

Concejal EAJ/PNV Donostia."

Eztabaida hasita, Martin Ibabe Ezeiza jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores, D. Martin Ibabe Ezeiza, D.. Jose Luis Arrue Pinto, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Josu Ruiz Martin, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

III.2.11 Kontrol mozioa, EAJ taldeak aurkeztutakoa, Buenavistatik Herrerara doan Hegalaren egoera dela eta

III.2.11. Moción de control que formula el Grupo EAJ/PNV relacionada con la situación que presenta la ladera que va desde Buenavista hasta Herrera.

Martin Ibabe Eceiza EAJ/PNV taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2015eko martxoaren 16an Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertutako interpelazioaren ondorioa da

D.Martin Ibabe Eceiza, concejal del Grupo Municipal EAJ, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento orgánico de Pleno, tiene a bien presentar la siguiente moción. La presente es consecuencia de la Interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos el día 16 de Marzo del 2015.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete gutxi batzuk barru, Donostiak hasiera emango dio bere historiaren urterik garrantzitsuenetako bat izan beharko lukeenari, hainbestetan aipaturiko 2016ari, alegia.

Bisitari gehienak errepidez etorriko dira. Mugaz bestaldetik etorriko diren bisitari gehienak gaur egungo saihasbidetik edo Buenavistatik sartuko dira Donostiara.

Ezagutzen ez dugun leku batera iristean, garrantzitsua izaten da irudi ona ematea, eta aipaturiko bideetako sarrerek ez dute, inola ere, irudi on hori ematen.

Bietan, han-hemen ikus litezke txabolismoa eta zabor metak. Hain egoera txarrik ez da udalerriko beste inon. Gainera, kasu askotan, udal lurretan gertatzen da hori, eta beste kasu batzuetan, berriz, Udalak pasibotasunez jokatzeko du.

JUSTIFICACIÓN

En unos pocos meses Donostia dará inicio a lo que debería ser uno de los años mas relevantes en su historia, el tantas veces mencionado 2016.

El mayor porcentaje de visitantes que recibamos llegarán a través de la red viaria. La gran parte de los visitantes que procedan del otro lado de la frontera accederán a Donostia a través de la actual variante o entrarán por Buenavista.

Cuando uno llega a un lugar que no conoce suele ser importante transmitir una buena imagen y las entradas viarias señaladas están muy lejos de dar una buena imagen.

En ambas el chabolismo y el acopio de basura campa a sus anchas. Esta situación, que no se da a este nivel en ningún otro lugar del Municipio, se produce en muchos casos en terrenos de propiedad Municipal y en otros casos bajo la pasividad Municipal.

Hori nahikoa ez, eta Udalak utzikeria erabatekoz jarduten du era horretako jarduerak debekatzen dituzten araudiak betetzeko orduan. Horren inguruan, hainbat galdera datozkigu burura:

- Hiriaren irudi hori saldu nahi al du udal gobernuak?

-Zer moralekin eska dakieke beren betebeharrak betetzen dituzten herritarrei hala segi dezatela, baldin eta Udalak berak bere jabetzako lursailetan ere esku hartzen ez badu bere ordenantzak betetzeko?

Horiek horrela, hauxe da gure

Por si esto no fuera suficiente el Ayuntamiento muestra una absoluta desidia en el cumplimiento de una serie de normativas que prohíben este tipo de actuaciones. A este respecto nos surgen varias preguntas

- ¿ Es esta la imagen de ciudad que quiere vender el Gobierno Municipal?

-¿ Con que moral se puede exigir a los ciudadanos que cumplen con sus obligaciones que lo sigan haciendo si es el propio Ayuntamiento el que no interviene ni en sus propiedades para cumplir con sus propias ordenanzas?

Teniendo en cuenta lo señalado, procedemos a presentar la siguiente

MOZIOA

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari ken dezala zaborra Buenavista eta Herrera arteko hegaletik, bai eta Larratxo eta Intxaurren arteko muinetan ere, sailhesbidearen aldirietan.

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin ditzala egin beharreko gestioak gainerako administrazioekin eta jabe partikularrekin, aurreko puntua eta dagozkion ordenantzak betetzeko.

Donostian, 2015eko martxoaren 20an

Izpta.: Martin Ibabe Ezeiza,

Donostiako EAJ/PNVko zinegotzia."

MOCIÓN

.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que proceda a retirar toda la basura existente en la ladera entre Buenavista y Herrera, así como en la loma comprendida entre Larratxo e Intxaurren en las inmediaciones de la variante.

.- El Ayuntamiento en Pleno insta al Gobierno Municipal a que proceda a realizar las gestiones oportunas con el resto de Administraciones y con los propietarios particulares con el objeto de que se cumplan el punto anterior y las correspondientes Ordenanzas.

En Donostia, a 20 de Marzo del 2015

Fdo: Martin Ibabe Ezeiza

Concejal EAJ/PNV Donostia."

Eztabaida hasita, Martin Ibabe Ezeiza jaunak, Vicente García Momblona jaunak, Nora Galparsoro Larrazo jaunak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores, D. Martin Ibabe Ezeiza, D.. Vicente García Momblona, D^a Nora Galparsoro Larraza y D. Miguel Angel Diez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

III.2.12 Kontrol mozioa, PSE-EE eta PP Taldeek aurkeztua, Udaltzaingoko lan eskaintza Publikoa dela eta.

III.2.12. Moción de control conjunta que formula los Grupos PSE-EE y PP sobre la oferta pública de empleo de la Policía Municipal

UDALBATZAREN BURUARI

AL SR. PRESIDENTE DEL PLENO

PSE-EE taldeko zinegotzi Ernesto Gasco Gonzalok, indarrean den Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu nahi dio Udaltzari, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2015eko martxoaren 16an izan zuen bileran **UDALTZAINGOKO LAN ESKAINTZA PUBLIKO**Az egindako interpelazioaren ondorioz.

Ernesto Gasco Gonzalo Concejal del Grupo PSE-EE, al amparo del vigente ROP, presenta, para su tratamiento en Pleno Municipal, la siguiente **MOCIÓN DE CONTROL** como consecuencia de la Interpelación realizada en la Comisión de Servicios Generales el pasado día 16 de marzo de 2015, con relación a la **OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO DE LA POLICÍA MUNICIPAL**

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Udal gobernuak 30 lanpostuko lan eskaintza publiko bat egin du, Udaltzaingoko plantilla handitzeko.

El Gobierno municipal ha convocado una oferta pública de empleo de 30 plazas para ampliar la plantilla de la Policía municipal.

Zerbitzu Orokorren Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran horren gainean galdetu eta Nekane Burutaran zinegotzi eskuordedunak erantzun zigun hori dela legeak libre uzten duena. Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioak bidalitako informazio idazki batek jartzen du, ordea, Udaltzaingoko langileen berritze tasa %100 izan daitekeela.

Interpelada al respecto en la última Comisión de Servicios Generales, la Delegada Sra. Burutarán indicó que ése era el límite permitido legalmente. Sin embargo, una circular de la Federación Española de Municipios y Provincias establece la tasa de reposición del personal de policía local hasta el 100%.

Bistan dago udal Gobernuak egindako deialdia ez dela nahikoa ezta plantillak berak dituen beharrentzat ere, eta oraindik eta gutxiago herritarren segurtasuna bermatzeko eta udako

Es evidente que la convocatoria realizada por el Gobierno municipal es insuficiente para las necesidades de la propia plantilla, pero también para garantizar la

lan poltsa bat eratzeko, hondartzak zaindu eta udan izaten den bisitari kopuruari erantzuteko.

seguridad ciudadana y para crear una bolsa de verano que permita vigilar las playas y dar respuesta a la afluencia de visitantes.

Hori dela eta, haxe da gure

Es por ello, que presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

Donostiako Udaltzako Udal Gobernuari eskatzen dio handitzeko orain egin duen deialdia eta Udaltzaingoan hutsik diren lanpostu guztiak ateratzeko eskaintza honetan.

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta Al Gobierno Municipal a que amplíe la convocatoria actual y convoque todas las plazas vacantes en la Policía municipal.

Donostian, 2015eko martxoaren 20an

En Donostia-San Sebastián, a 20 de Marzo de 2015.

Ernesto Gasco
Portavoz PSE-EE

Ernesto Gasco

Portavoz PSE-EE

Concejal PP

Concejal PP

Eztabaida hasita, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Ramón Gómez Ugalde jaunak, Martin Ibabe Ezeiza jaunak eta Nekane Burutaran Urbietak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores, D. Ernesto Gasco Gonzalo, D. Ramón Gómez Ugalde, D. Martin Ibabe Ezeiza y D^a Nekane Burutaran Urbietak, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 18 - (7) PSE-EE, (6) PP, (5) EAJ/PNV.

AURKAKO BOTOAK: 8 - BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 18 - (7) PSE-EE, (6) PP, (5) EAJ/PNV.

VOTOS EN CONTRA: 8 - BILDU.

III.2.13 Kontrol mozioa, EAJ Taldeak aurkeztua Hiriko proiektu eraldatzaileen gaineko erakusketa ibiltaria eta

III.2.13. Moción de control que presenta el Grupo EAJ/PNV sobre exposición itinerante y buenas prácticas

hauteskunde aurre honetan egoki jardutea dela eta.

EAJ/PNV udal taldeko zinegotzi Iñaki Gurrutxaga Armendarizek, Udalbatzaren Organo Araudiko 134. artikulua ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Zerbitzu Orokorren Batzordean egindako bi interpelazioen ondorioz, Hiriko proiektu eraldatzaileen gaineko erakusketa ibiltariaren gainean bat eta hauteskunde aurre honetan egoki jardutearen gainean bestea.

Iñaki Gurrutxaga Armendariz, concejal del grupo municipal EAJ/PNV, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, consecuencia de las interpelaciones sustanciadas en la Comisión de Servicios Generales, una sobre la exposición itinerante “Los proyectos transformadores de la ciudad”, y la segunda sobre las buenas prácticas en el actual momento preelectoral.

JUSTIFIKAZIOA

Datorren maiatzean izango dira udal hauteskundeak; garbi ezagun duen gauza Udal Gobernuaren jardunbideari begiratzuz gero. Izan ere, gauza asko, azkarregi egiten dira, eta hiriarentzako ondorio onik ez ekartzeko modukoak dira. Beste asko, berriz, Bildu talde politikoaren helburu politikoei edo talde horren alkategaiari —orain den alkateari— publizitatea egiteko dira, argi eta garbi.

Horren etsenplurik argienetako bat Hiriko proiektu eraldatzaileak izenburupeko erakusketa ibiltaria dugu, Udalaren diru publikoz ordaindua, Udalaren lokaletan erakusten dena, Bilduren propaganda egitea beste helbururik ez duena eta, dituen helburu eta proiektuen artean, talde politiko bakar batenak bakarrik dituena: “Bakearen usoa” eskultura tokiz aldatzea, konparazio baterako.

Denenak diren baliabide publikoak erabiltzea, alegia, talde politiko bakar bati mesede egiteko; gauza publikoak inpartzialtasunez erabili eta, orain gauden hauteskunde aurre honetan bezala, jandun instituzionalean neutraltasunez jokatu beharrean. Eta egin ere halaxe egin du Bilduren Udal Gobernuak: gauden hauteskunde aurre honetan gauza publikoak gestionatzeko orduan ondo jarduteko ekimenak hartu ez baina, juxtu kontrakoa egin.

JUSTIFICACIÓN

El próximo mes de mayo se celebrarán las elecciones municipales y esa circunstancia esta influyendo de manera notable en la la actuación del Gobierno Municipal, lo que explica muchas de las actuaciones, algunas precipitadas y de consecuencias negativas para el interés de la ciudad, y otras claramente encaminadas a dar publicidad a objetivos políticos del Grupo Político Bildu o a promocionar a su candidato a la alcaldía, el actual alcalde.

Uno de los ejemplos más claros es la exposición itinerante que lleva el título de “Los proyectos transformadores de la ciudad”, exposición que se financia con recursos públicos del Ayuntamiento y que se exhibe en locales municipales, cuyo fin no es otro que hacer propaganda a Bildu, y que incluye, entre otros, objetivos o proyectos de un único grupo político, como el del traslado de la escultura de la “Paloma de la Paz”.

Se trata, en definitiva, de la utilización de medios públicos que son de todos, para favorecer a un único grupo político, en contraposición al principio de imparcialidad en el uso de lo público, y de neutralidad de la actividad institucional ante momentos preelectorales como los que estamos viviendo. De hecho el Gobierno Municipal de Bildu no ha tomado ninguna iniciativa, más bien todo lo contrario, para promover buenas prácticas en la gestión de lo público en momentos preelectorales como los que

estamos viviendo.

Hori dela eta, hauxe da nire

Sobre la base de cuanto antecede, el concejal
que suscribe presenta la siguiente

MOZIOA

MOCIÓN

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio uzteko baliabide publikoak bere proposamen politikoak sustatzeko eta Bildu taldearen hauteskunde sustapena egiteko erabiltzeari, baliabide publiko horiek donostiar guztienak dira eta.

2.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio ekimen bat jartzeko martxan hauteskunde aurre honetan udal talde guztien artean jardunbide egokien kode bat jartzeko, Udalaren erakunde jarduna neutrala izatea bermatzeko modukoa, besteak beste.

1º.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que deje de utilizar recursos públicos, que son de todos los donostiaras, para hacer promoción de sus propuestas políticas, así como promoción electoral del Grupo Bildu.

2º.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que tome la iniciativa de promover un acuerdo con todos los grupos municipales para establecer un código de buenas prácticas en este momento preelectoral que garantice, entre otras cosas, la neutralidad de la actividad institucional municipal.

Donostian, 2015eko martxoaren 20an

En Donostia-San Sebastián, a 20 de marzo de 2015

Izpta.: Iñaki Gurrutxaga Armendariz

Fdo.: Iñaki Gurrutxaga Armendariz

Eztabaida hasita, Iñaki Gurrutxaga Armendariz jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Josu Ruiz Martin jaunak eta M^a Jose Usandizaga Rodriguez, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores, D. Iñaki Gurrutxaga Armendariz, D^a. Marisol Garmendia Beloqui, D. Josu Ruiz Martin y D^a M^a Jose Usandizaga Rodriguez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) PP, (5) EAJ/PNV.

AURKAKO BOTOAK: 8 – BILDU.

ABSTENTZIOAK: 7– PSE-EE

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 11 – (6) PP, (5) EAJ/PNV.

VOTOS EN CONTRA: 8 – BILDU.

ABSTENCIONES: 7– PSE-EE

III.2.14 Kontrol mozioa, EAJ Taldeak aurkeztua Bakearen usoa" eskultura lekuz aldatzea dela eta.

EAJ/PNV taldeko zinegotzi Iñaki Gurrutxaga Armendarizek, Udaltzatzen Organo Araudiko 134. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, otsaileko Ogasun Batzordean Nestor Basterretxea euskal eskultore zendu berriaren "Bakearen usoa" eskultura lekuz aldatzearen gainean aztertutako interpelazioaren ondorioz

III.2.14. Moción de control que presenta el Grupo EAJ/PNV sobre el traslado de la escultura "La paloma de la paz".

Iñaki Gurrutxaga Armendariz, concejal del grupo municipal EAJ/PNV, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, consecuencia de la Interpelación tratada en la Comisión de Hacienda del pasado mes de febrero sobre el traslado de la escultura "La Paloma de la Paz" del escultor vasco, recientemente fallecido, Nestor Basterretxea.

JUSTIFIKAZIOA

Alkateak alde bakarretik erabaki zuen Nestor Basterretxea eskultorearen "Bakearen usoa" eskultura Amarako Aita Donostia plazatik kentzea eta Saguesera eramatea, nahiz eta kokaleku horrek Bildu talde politikoaren babesa baino ez izan.

Nestor Basterretxearen "Bakearen usoa" 1988an inauguratu zuten, Zurriola pasealekuan, eta, handik gutxira, Kursaleko lanak hasi zirenean, Amara eraman zuten, Aita Donostia plazara. Eskultoreak berak esan zuenez, "bakearen aldeko ekintza militante" gisa sortu zuen obra, eta bakearen aldeko eta indarkeria terroristaren aurkako herri mugimenduaren ikur bihurtu zen. Hain zuzen, "Bakearen usoa" eskulturaren inguruan milaka pertsona elkartu gara hainbat hamarkadatan bakearen eta hitzaren alde eta ETaren jardunaren aurka, eta hortixe abiatu dira Donostiako manifestazio jendetsuenetako batzuk. Hala, eskulturak balio sinboliko berri bat lortu zuen Aita Donostia plazako kokaleku berrian, eta halaxe aitortu zuen egileak berak.

Beraz, nahiz eta hasieran Nestor Basterretxea

JUSTIFICACIÓN

El alcalde tomó unilateralmente la decisión de desmontar la escultura de la "Paloma de la Paz" del escultor Nestor Basterretxea de su emplazamiento en el barrio de Amara, en la Plaza "Aita Donostia", para trasladarla a Sagües, a un emplazamiento que sólo cuenta con el respaldo del grupo político "Bildu".

La "Paloma de la Paz" de Nestor Basterretxea fue inaugurada en 1988 en el Paseo de la Zurriola, y poco después, cuando comenzaron las obras del Kursaal, fue trasladada a Amara, a la plaza "Aita Donostia". En palabras del propio escultor, la obra fue concebida como "una acción militante en favor de la paz", y se convirtió en un símbolo del movimiento ciudadano a favor de la paz y contra la violencia terrorista. En efecto, en torno a la escultura de "La paloma de la paz" miles de personas nos hemos concentrado durante varias décadas en favor de la paz y la palabra y en contra de la actividad de ETA, y desde este punto partieron algunas de las manifestaciones más multitudinarias de Donostia. De ese modo, la propia escultura adquirió en el nuevo emplazamiento de la plaza Aita Donostia un valor simbólico nuevo, que fue reconocido por el propio autor.

Por tanto, si bien inicialmente Nestor Basterretxea manifestó su deseo de que la

adierazi eskultura berriz ere itsasoari begira jartzea nahi zuela, denborarekin, eskulturak Amaran hartu zuen balioa estimatzen eta baloratzen jakin zuen.

escultura volviera a algún emplazamiento que mirara al mar, con el paso del tiempo supo apreciar y valorar la dimensión que había adquirido dicha escultura en el emplazamiento de Amara.

Bestalde, udal taldeen artean ez dago adostasunik Sagueseko kokalekuaren inguruan, Udaleko 27 zinegotzietatik 8k baizik ez baitute babesten aukera hori. Kontuan izan behar da, gainera, kokaleku berrian jartzea eta ingurua urbanizatzea 800.000 euro baino gehiago kostako dela, udal gobernuak agindutako azterlan baten arabera. Bestalde, kokaleku horretan jarriz gero, gerta liteke HAPOn alor horretarako dauden hirigintza aurreikuspenak ezin betetzea.

Por otra parte, no hay consenso entre los grupos municipales acerca del emplazamiento en Sagües, opción que apoyan solamente 8 de los 27 concejales del Ayuntamiento. Hay que considerar, además, que la colocación en el nuevo emplazamiento y la urbanización del entorno, va a costar más de 800.000 euros, según el estudio encargado por el gobierno municipal, y, por otra parte, el emplazamiento elegido puede hipotecar el desarrollo de las previsiones urbanísticas que hace para ese ámbito el PGOU.

Gainera, eskultura Aita Donostia plazatik kenduta, espazioa hutsik eta umezurtz geratu da eta Amarako donostiar askok eta, bereziki, Amarako elkarteek ez dute sinbolo hori galdu nahi, auzoaren nortasun ikurtzat baitaukate.

Pero, además, la retirada de la escultura de la plaza Aita Donostia ha dejado un espacio vacío y huérfano, y muchos donostiaras de Amara, y en particular las asociaciones de Amara no quieren perder un símbolo que consideran una seña de identidad del barrio.

Horregatik guztiagatik aurkezten dut ondorengo

Sobre la base de las consideraciones expresadas, el concejal que suscribe propone la siguiente

MOZIOA,

MOCIÓN

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari eman ditzala eman beharreko aginduak Nestor Basterretxea eskultorearen "Bakearen usoa" eskultura osterara ere Amarako Aita Donostia plazan jartzeko.

1º.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde a que de las instrucciones necesarias para restituir la escultura "La Paloma de la Paz" del escultor Nestor Basterretxea a la plaza Aita Donostia de Amara.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari ez dezala alde bakarretik inposatu "Bakearen usoa" eskultura Saguesen jartzeko asmoa eta maiatzeko hauteskundeen ondoren sortzen den udalbatzaren esku utz dezala gai horren inguruko azken erabakia.

2º.- El Ayuntamiento Pleno insta al Alcalde a que desista de imponer unilateralmente el emplazamiento de Sagües para la escultura "La Paloma de la Paz", y remita a la nueva corporación que surja de las próximas elecciones de mayo la decisión definitiva sobre esta cuestión.

Donostia, 2015eko martxoaren 20

En Donostia-San Sebastián, a 20 de marzo de 2015

Fdo.: Iñaki Gurrutxaga Armendariz."

Izpta.: Iñaki Gurrutxaga Armendariz.”

Eztabaida hasita, Eneko Goia Laso jaunak, Ramón Gómez Ugalde jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores, D. Eneko Goia Laso, D. Ramón Gómez Ugalde, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 18 – (7) PSE-EE, (6) PP,
(5) EAJ/PNV

AURKAKO BOTOAK: 8 – BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 18 – (7) PSE-EE, (6) PP,(5)
EAJ/PNV

VOTOS EN CONTRA: 8 – BILDU.

ETA BESTELAKO AZTERGAIRIK EZ DENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO ARRATSALDEKO SEIRAK ETA HOGEITA HAMALAU MINUTUTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECIOCHO HORAS Y TREINTA Y CUATRO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:

EGINBIDEA

Donostiako Udaletxeko Pleno Aretoan, aurretik bidalitako deialdiaren ondorioz, ohiz kanpoko bilkura izan zuen Udalbatzak 2015eko ekainaren 10ean, eta beheko zerrendako partaideek honako akta hau onartu zuten.

Bertaratuak: Juan Carlos Izagirre Hortelano jauna, Josu Ruiz Martín jauna, Miren Nekane Burutarán Urbieto andrea, Jon Albizu Agirrezabalaga jauna, Naiara Sampedro Pérez andrea, Ricardo Burutarán Ferré jauna, Axier Jaka Goikoetxea jauna, Nora Galparsoro Larraza andrea, Ernesto Gasco Gonzalo jauna, Susana García Chueca andrea, Denis Itxaso González jauna, M^a Soledad Garmendia Beloki andrea, Enrique Ramos Vispo jauna, M^a Maravillas Dafauce Pozo andrea, Miguel Ángel Díez Bustos jauna, Ramón Gómez Ugalde jauna, M^a José Usandizaga Rodríguez andrea, José Luis Arrúe Pintó jauna, Iñigo Arcauz Ascargorta jauna, M^a Iciar Aguilera De Juan andrea, Eneko Goia Laso jauna, Miren Azkarate Villar andrea, Juan Ramón Viles Mitxelena jauna, Aitziber San Román Abete andrea, Iñaki Gurrutxaga Armendariz jauna eta Martín Ibabe Eceiza jauna.

DILIGENCIA

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, previa convocatoria, el Pleno celebró sesión extraordinaria el día 10 de junio de 2015, con los asistentes abajo reseñados y procedió a la aprobación de este acta.

Asistentes: D. Juan Carlos Izagirre Hortelano, D. Josu Ruiz Martín, D^a Miren Nekane Burutarán Urbieto, D. Jon Albizu Agirrezabalaga, D^a Naiara Sampedro Pérez, D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Axier Jaka Goikoetxea, D^a. Nora Galparsoro Larraza, D. Ernesto Gasco Gonzalo, D^a Susana García Chueca, D. Denis Itxaso González, D^a M^a Soledad Garmendia Beloki, D. Enrique Ramos Vispo, D^a M^a Maravillas Dafauce Pozo, D. Miguel Ángel Díez Bustos, D. Ramón Gómez Ugalde, D^a. M^a José Usandizaga Rodríguez, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Iñigo Arcauz Ascargorta, D^a M^a Iciar Aguilera De Juan, D. Eneko Goia Laso, D^a Miren Azkarate Villar, D. Juan Ramón Viles Mitxelena, D^a Aitziber San Román Abete, D. Iñaki Gurrutxaga Armendariz y D. Martín Ibabe Eceiza.

IDAZKARIA / EL SECRETARIO

Sinatua / Firmado: Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA